

EMAKUMEEN ELKARTEEN DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2021

Dokumentu honen bidez, **Emakunderen zuzendariaren 2021eko otsailaren 16ko ebazpenaren** edukiaren zati bat jaso nahi da. Ebazpen horren bidez, **2021eko ekitaldian** emakumeen elkartegintza eta parte-hartzea sustatzeko diru-laguntzak ematea arautzen da (<https://www.euskadi.eus/2021/elkartek/web01-tramite/eu/>).

Hala ere, dokumentu honek **beste deialdi batzuekin alderatuta sartutako hobekuntzak eta bertara aurkezten diren erakundeek kontuan hartu beharreko funtsezko puntuak baino ez ditu jasotzen. Beraz, ezinbestekoa da ebazpena osorik eta arretaz irakurtzea.**

Horrela, helburu berarekin antolatutako **informazio-saioetan eskainitako edukiak** eta bertan adierazitako elkarte guztientzat **garrantzitsuak diren galderak** jasotzen dira. Ebazpenean agertzen den gai-ordena errespetatu da, orientabide txiki horiekin errazago irakurtzeko eta ulertzeko helburuarekin.

Jarraian, informazio-saioen edukia:

1. Xedea eta denbora-eremua

- **Emakumeen eta gizonen berdintasun erreala** lortzen laguntzea.
- **Proiektuak 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean** gauzatu ahal izango dira.

2. Entitate onuradunak

- Irabazi-asmorik gabeko emakumeen elkarteak eta federazioak, eta emakumeen eta gizonen Berdintasun erreala lortzeko helburu eta jardun-eremu bakarra duten fundazioak.
- **Zuzendaritza-batzordearen osaera egiaztatuko** da, emakumez osatuta dagoela egiaztatzeko.
- Estatutuetan egiaztatuko da **"emakumea izatea"** baldintza dela erakundearen sartzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan dagoela egiaztatuko da (<https://www.euskadi.eus/euskal-autonomia-erkidegoko-elkarteen-erregistroa/web01-tramite/eu/>) Deialdi honetan ez dira sartzen, adibidez, elkarte mistoak edo kirol-elkarteak bezala erregistratutakoak.



3. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak

- Proiektu guztiek VII. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana, eta ikuspegi feminista eta interseksionala txertatzea.
- Diru-laguntza jaso dezaketen programak honako hauek dira, aipatutako ebazpenaren 4. artikuluan idatzita daudenak:
 - a) emakumeen eskubideak hedatzea aniztasunetik, emakume-mugimenduaren historiatik eta pentsamendu feministatik;
 - b) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerketa eta dibulgazioa, eta emakumeen erreferenteak eta genealogiak sortzea;
 - c) ikuspegi feminista duten prozesu parte-hartzaileak sustatzea, ahalduntze indibiduala, kolektiboa, soziala eta politikoa bultzatuko dutenak, horrela emakumeen presentzia, protagonismoa eta lidergoa finkatuz askotariko prozesu eta espazioetan;
 - d) esperientziak, belaunaldien arteko itunak eta elkarte-mugimenduaren koordinazioa sustatzea eta trukitzea, sareko partaidetza-prozesuen bidez;
 - e) prestakuntza eta sentsibilizazioa, paradigma feministatik;
 - f) gizonen erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzea etxeko lanetan eta arduretan eta familia- eta gizarte-zaintzan.
- Trebetasunak ikasteko proiektuak, diru-laguntzak jaso ahal izateko, beste berdintasun-jarduera batzuekin osatu beharko dira eta/edo ikuspegi feminista integratuta izan beharko dute.
- Diruz lagunduko ez diren proiektuak:
 - Aisialdiko jardurekin
 - Beste erakunde batzuei zerbitzuak eskaintzea
 - Genero-ikuspeirik gabe

4. Emate prozedura

- Gehienez 12.000 euro eskatu ahal izango dira erakunde bakoitzeko.
- Gehienez 2 proiektu aurkeztu ahal izango dira erakunde bakoitzeko. Proiektu bakoitzean jarduera bat baino gehiago egon ahal izango dira, baldin eta jarduera guztiak proiektuaren zati badira, helburu bereberri erantzuten badiote eta ebaluazio- eta metodologia-adierazleak badituzte, adibidez.



- Ordainketa **bi epetan** egingo da: lehen, % 75ekoa, diru-laguntza jasoz gero, diru-laguntza emateko ebazpena argitaratu ondoren; bigarrena,% 25ekoa, justifikazioa zuzena dela egiaztatuta ondoren egingo da.
- Zenbatekoaren esleipena puntuazio-irizpide hauen arabera kalkulatu da:
 - 31 puntu baino gutxiagoko proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasotzen.
 - 71 puntutik gorako proiektuak ez dira hainbanaketan sartzen.
 - 71 puntu baino gutxiagoko proiektuak hainbanaketan sartzen dira.
 - Kantitatea kalkulatu da, lortutako puntuazioa eskatutakoaren gaineko ehuneko bihurtuz (hainbanatzera pasatu aurretik edo ez).
- **Hainbanatze-sistemak formula honen bitartez burutzen da:** diru-laguntza osoa ken hainbanaketan sartzen ez diren proiektuei esleitutako guztizkoa (71 puntu baino gehiago) hainbanaketan sartzen diren proiektuei esleitutako guztizkoaren artean (71 puntu baino gutxiago). Ateratzen den indizea 71 puntu baino gutxiagoko proiektuei esleitutakoarekin biderkatzen da. (Ikus adibidea informazio-saioaren aurkezpenean).
- **Puntuazioa esleitzeko irizpideak**, ebazpenaren 10. artikuluan daude (ikus esteka lehendabiziko orrian).

5. Epeak

- Eskabideak aurkezteko epea **otsailaren 27tik martxoaren 26ra** bitartekoa izango da.
- Izapide guztiak egoitza elektronikoaren bidez egin behar dira. Eskabidea, egoitza elektronikoaren bidez, (<https://www.euskadi.eus/2021/elkarteak/web01-tramite/eu/>), eta zuzenketak, espedientea sortu ondoren egindako dokumentazio-ekarpenak eta egoitza elektronikoaren (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>) "nire karpeta"ren bidez zuziketa.
- 2021eko zuziketa aurkezteko azken eguna 2022ko **martxoaren 1a** da.

6. Eskabidea

- Eskabidean aurkeztu beharreko dokumentazioa aipatutako ebazpenaren **7. artikuluan** dago jasota.



- Deialdi honetan lehen aldiz eskatzen den dokumentazioa:
 - Elkarteen Erregistroko izen emate-ziurtagiria, **zuzendaritza-batzordearekin** (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/administrazio-erregistroak/-/elkarte-erregistroa-bilatzailea/>)
 - Proiektua edo proiektuak, I. eranskinaren arabera, gehienez ere 10 orrialdekoa.
 - Estatutuen kopia eguneratua

7. Jakinarazpenak eta akatsak zuzentzea

- Jakinarazpen guztiak egoitza elektronikoen bidez egingo dira, eta ohartaraziko da zerbait iritsi dela eskaera digitalean adierazitako **telefono mugikorrera edo helbide elektronikora mezua bidalita**. Nahi izanez gero, telefono eta email bat baino gehiago jar daitezke.
- Akats zuzentzea egiten da aurkeztutakoa zuzendu behar denean edo eskaera izapidetzeko ezinbestekotzat jotzen dugun zerbait aurkeztu behar denean. Zuzentzeko epea **10 eguneko** da, jakinarazpena iritsi eta hurrengo egunetik aurrera.
- Ez da zuzenketarik eskatzen, baldin eta diruz lagundu beharreko zenbatekoaren esleipenaren balorazioan soilik jasotzen den, dokumentazioa eta/edo informazioa aurkezten ez bada.
Adibidez, kontziliazio-neurriei buruzko informaziorik ematen ez bada, ez dugu akats zuzentzea eskatuko, baizik eta atal horretan 0 puntu jasoko lirateke.

8. Esleipen irizpideak

Esleipen-irizpideak **ebazpenaren 10. artikuluan** deskribatuta daude.

Balorazioa hiru ataletan banatzen da:

I. Proiektuaren kalitate teknikoa. Gehienez 50 puntu.

Zer esan nahi du ikuspegi **intersektionala**?

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean (definizioa aurki dezakezue, baita ikuspegi hori kontuan hartzeak zer esan nahi duen ere (22. orrialdea):



INTERSEKZIONALITATEA

Genero-ikuspegiaren ikuspegi konplexuago eta integralago batetik, VII. Planak generoaren eta beste desberdintasun batzuen arteko interseksionalitatea ere aitortzen du bere estrategiaren diseinuan. Patriarkatuan emakumeek genero-identitatea partekatzen duten arren, ez diote identitate-ezaugarri bakar bati erantzuten. Horregatik, emakumeak, beren aniztasunetik, desberdinak dira beren artean, generoarekin duten harremanaren arabera, elkarrekikotasunean, beste desberdintasun- eta diskriminazio-iturri batzuk, hala nola hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, adina, dibertsitate funtzionala, etab.

Interseksionalitateak berekin dakar ekintza konplexuago eta integratzaileago bat proposatzea, emakumeen aurkako desberdintasunak areagotzen diren egoerei begira, oraindik ibilbide luzea ez duena lurreratze politiko eta instituzionalean, eta horrek haren ezarpena mugatzen du.

2. Proiektuaren berriazko neurriak. Gehienez 40 puntu.

3. Erakundearen ibilbidea berdintasunaren arloan. Gehienez 10 puntu.

9. Entitate onuradunen betebeharrak

- Diru-laguntzaren erakunde onuradunek 15 eguneko epea dute diru-laguntza onartzeko. 15 egun horiek igarotakoan onartutzat joko da, berriaz uko egin ez bazaio.
- **Emakunderi helburu berarekin jasotako laguntzen berri ematea.** Beharbada, eskabidea aurkezten denean, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei helburu bererako eskatutako laguntzak eman diren ez da jakiten, baina beste finantzaketa-iturri batzuk daudela jakin ondoren, Emakunderi jakinarazi behar zaio egoitza elektronikoaren bidez, dagokion espedientean.
Adibidez, beste finantzaketa-iturriak emateko ebazpena edo beste egiaztagiri batzuk erantsita.
- **"Hirugarren zati interesatuaren alta"** dokumentua bidali behar da. Dokumentu horretan erakundearen banku-datuak ematen dira, inoiz aurkeztu ez bada, edo aldaketaren bat izan bada, bidali behar da, bi ordainketak egiteko erabiltzen diren datuak baitira.
- **Proiektuak edo proiektuek aldaketaren bat badute**, gutxienezkoa bada ere, **Emakunderi eskatu behar zaio, espediente elektronikoan idazki bat aurkeztuz**, eta Emakundek eskaera berrikusiko du eta **erantzun positiboa edo negatiboa** emango du, diru-laguntza hasieran aurkeztutako proiektuan oinarrituta eman baita dirulaguntza.



- Erabilera ez-sexista egitea proiektuaren fase guztietan.
- Publizitate guztia euskaraz eta gaztelaniaz egin behar da (publizitatean euskara sartzeak ez du puntuazio gehigarririk jasotzen, erakunde onuradunen betebeharra baita. Hori ez litzateke kontuan hartuko euskararen erabilera lehenesteko neurri espezifikoetan).

10. Zuriketa

Deialdiaren fase honetan entregatu beharreko dokumentazio guztia aipatutako ebazpenaren 14. artikuluan dago jasota.

Garrantziagatik edo justifikazioetan akats arruntak izateagatik arreta berezia jarri behar zaien dokumentuak honako hauek dira:

- Memoria teknikoa (jarraitu II. eranskineko gidoia)
- Memoria ekonomikoa (jarraitu II. eranskineko gidoia)
- Fakturak
- 100 €-tik gorako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiriak.
- PFEZaren egiaztagiriak (emandako fakturen PFEZren zenbatekoa kontuan hartzeko, egiaztatu behar da benetan aitortu dela eta dagokion lurralde-ogasunak onartu duela, adibidez, 190 ereduarekin edo kontura pasatutako ordainagiriarekin).
- BEZaren salbuespen-ziurtagiria (eskabide digitalean erantzukizunpeko adierazpen bat dago, erakundeak BEZik ez duela adierazten duen lekuan markatzeko aukerarekin; lauki hori markatu ezean, justifikazio-fasean justifikatu behar da salbuespen hori, hala frogatzen duen ziurtagiri batekin; bestela, fakturen BEZari dagozkion zenbatekoak ez dira kontuan hartuko).
- Diruz lagundutako jardueraren ondoriozko produktuak (materialen bat ateratzen bada, espedientera igo ahal izango da, edo paperean bada, posta arruntez bidali ahal izango da Emakundera).
- Emakundek publizitatean lagundu duela egiaztatzen duten agiriak (gogoratu elebiduna izan behar duela).



Bi proiektu aurkeztuz gero, diru-laguntza emateko ebazpenean proiektu bakoitzerako diruz lagundutako zenbatekoa zehaztuko da, horrek suposatzen du horren arabera justifikatu beharko dela, hau da, proiektu bakoitzari emandako zenbatekoa justifikatu beharko da.

*Ikus **adibidea** informazio-saioaren aurkezpen-dokumentuan (22. diapositiba).*

- **Emandakoa** justifikatu egin behar da.
- **Proiektuaren gastu arruntak %15ekoak** baino ezin dira izan. Joan-etorriak, telefonoa, material suntsikorra, proiektuarekin erabat lotuta egon behar dira, proiektuak erabilera hori islatu behar du justifikatu ahal izateko. **Hedapeneko eta laguntza teknikoko** gastuak ez lirateke gastu arrunt horien barruan sartuko.

II. Eranskinak

Deialdi honetarako bi eranskin sortu dira: **I. eta II. eranskinak**. Lehenengoak **eskaera-faseari** erantzuten dio, eta bigarrenak **zuriketa-faseari**. Ez dira bete beharreko eranskinak, **gidoi bat** duten eranskinak dira, proiektua nola egin eta justifikazioaren alderdi teknikoa nola egin proposatzen dutenak.

- **I. eranskina** egiteko, kontuan hartu dira ebazpenaren 10. artikuluan islatzen diren balorazio-irizpideak, hau da, gero diru-laguntza emateko balioko duen puntuazioa. Proiektuak **10 orrialde** izango ditu gehienez.
- **II. eranskinak** proiektuaren memoria teknikoa eta ekonomikoa nola bete justifikatzen du. Gehienez **6 orrialdekoa** izan behar da. Fase honetan, honako hauek hartuko dira kontuan:
 - Eskabidean **aurkeztu zena zehatz-mehatz egin izana.**
 - Eskabidean aurkeztutako **aurrekontua** justifikazioaren azken balantzearekin betetzen dela (desbideratze tipikoak izan ezik)
 - **Eskabidean puntuazioa jaso den alderdiak islatzea, justifikatzea.**
Adibidez, hasierako proiektuan kontzilio-neurriak hartuko zirela adierazi zen, justifikazioan hori horrela izan dela eta, batez ere, hala izan dela agertzea.



Espero dugu ohar hauek **baliagarriak izango zaizkizuela** emakume-elkarteentzako diru-laguntzen deialdiaren fase guztietan.

Sortzen zaizuen edozein zalantza argitzeko, jar zaitezte harremanetan Emakunderen Programa eta Prestakuntza Arloko **Haizea Mirandarekin**, gai teknikoetarako, edo **Iratxe Murgarekin**, gai administratiboetarako.

